

Ordizian, 2011ko azaroaren 15ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDAL EKO OSOKO BILKURA, EZ-OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea


**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Ezin etorria adierazi du.

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**



## AZTERTUTAKO GAIAK

### EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-GOIEKI SAko ordezkariak izendatzea. ....3.orr.
- 2.-Lanpostu zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatzea: Aldi baterako langileak.- .....3.orr.

### PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK


GALDE-ESKEAK

### ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 18,00

BUKAERA ORDUA: 18,35





Alkate jn.

Gaurko ez-ohiko osoko bilkura deialdiaren premia arrazoitu eta zuritu du, gai-zerrendan sartutako bi puntuena:

- GOIEKIko ordezkarien izendapena, erakundeak izendapena egiteko eskaera egin duelako bere ohiko funtzionamendua lortzeko.
- Lanpostu Zerrendaren aldaketa, "jai eta azoketako kudeatzaile" lanpostua Lanpostu Zerrendan aldi bateko izaerarekin sartzea premiazkoa dela ikusten delako eta postu hori beteko duen pertsona izendatu ahal izateko.

Lanpostu horretarako era askean izendatuko den pertsonak azaroaren 23ra arteko kontratua du eta lanean jarraitzea ezinbestekoa da Gabonak gertu ditugulako eta ekitaldi ugari prestatu behar delako.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako lehen puntuaren berri eman du:

### **1.-GOIEKI SAko ordezkariak izendatzea.**

#### Proposamena

Udalbatzarrak, 2011ko ekainak 30 egindako bilkuran, Udalbatzaren menpeko kide anitzeko Udal Organoetako ordezkariak izendatu zituen.

Goierriko Ekimena S.A. (Goieki S.A)-ri zegokion izendapena hartzeko geratu zen.

Alkatetzak proposatutako izendapenaren berri ematen da:

GOIERRIKO EKIMENA, S.A. (Goieki S.A.):

- Igor Eguren Izagirre
- Jose Miguel Santamaria Ezeiza.


Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Kontraesanean erortzen dela dirudien arren, lehen puntuaren premiazko izaera azaltzeko esandakoengatik, gaia atzeratzeko proposamena egingo duela adierazi du, eta hurrengo ohiko osoko bilkurarako utzi.



GOIEKI SAko Administrazio Batzordean kideak izendatzeko negoziazioak egin direla jakinarazi du, bai Alderdi Sozialistarekin bai EAJ-PNVrekin. Negoziazioen ondorioz izendapena egiteko akordio bat lortu da eta horregatik bideratu da ez-ohiko osoko bilkura.

Hala ere, akordio hau lortu da azken urteetako ildoan errespetatuz, hau da, eskualdean alderdi politikoek lortutako ordezkartzaren proportzionaltasuna kontuan izanda.

Dena den, arratsalde honetan jakin du akordioak ez dituela Elkartearen Estatutuak errespetatzen Batzordearen eraketari dagokionez. Izan ere, alderdi politiko guztiek izan behar dute ordezkartza bertan.

Bere alderdiak filosofia horrekin bat egiten duela adierazi du eta horrez gain, sindikatuek ere Batzorde horretan ordezkartza izan beharko luketela uste dute.

Puntu hurrengo osoko bilkurarako uztea proposatzen du beraz.

#### Idazkari andreak

Proposamena eguneko zerrendatik kentzeko bozketa egin behar dela jakinarazi du eta eskatzen den gehiengo gehiengo soil dela.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena mahai gainean geratu da.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

### **2.-Lanpostu zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatzea: Aldi baterako langileak.-**

#### Proposamena

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 104.1 artikulua arabera, udal bakoitzaren osoko bilkurari dagokio aldi baterako langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak zehaztea.

Kontuan izanda aurreko legealdian sortu ziren eta 2011ko Lanpostu zerrendan eta Plantilla Organikoan zeuden aldi baterako bi lanpostu ez direla mantentzen, ezabatu egin behar dira orain, eta beraz, aipatutako agiriak aldatu egin behar dira.



Udaleko osoko bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.i) artikulua araberara eta indarrean dagoen toki araubidearekin zerikusia duten xedapenen Testu Bateratuaren 129.3 artikulua araberara, langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea, eta horrekin batera horri dagozkion aldaketak.

Ondorioz, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehenen.** 2011 ekitaldiko Lanpostu Zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatzea, aurreko legealdian sortutako "Komunikazio eta Informazio teknikari" eta "Herritarren partaidetza bultzatzeko administrari laguntzaile" aldi baterako lanpostuak ezabatuz eta aldi baterako lanpostua den "Jaietako kudeatzaile" lanpostua mantenduz, 2822,59 euroko ordainsari gordinarekin.

**Bigarrenen.** Onartutako aldaketak GAO n argitaratzea Toki Araubideen lege xedapenei buruzko Testu Bateratuko 127 artikulua zehazten duen moduan.

**Laugarrenen.** Aldaketa horien kontrako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea.

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Lanpostu Zerrendan eta Plantilla Organikoan "Jai eta azoken kudeatzaile" lanpostua sortzeko beharra dagoela jakinarazi du, aldi bateko izaerarekin. Aurreko legealdian postua zortuta bazegoen ere, Udaltza bakoitzeko osoko bilkurak onartu behar du aldi bateko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak.

Horregatik sartu edo mantendu da aipatutako lanpostua, eta aurreko legealdian sortutako eta aldi bateko izaera zuten Komunikazio teknikari eta herritarren partaidetza sustatzeko Administrari Laguntzaile lanpostuak ezabatu dira.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena mahai gainean geratzen da.





Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.